

HOGEITA ZAZPIGARREN BILERAKO akta

BIZKAIKO INDARKERIA MATXISTAREN BEHATOKIA

Eguna eta ordua:

2022ko azaroaren 11, 10:00 - 12:00

Tokia:

Rekalde zumarkalea 30, 1. solairua (Bilbo). 1. batzargela.

Gai zerrenda:

1. Ongietorria eta dokumentazioa ematea.
2. Gai zerrenda irakurtzea.
3. Aurreko bilerako akta onartzea.
4. Ordezkarri berriak aurkeztea.
5. 2021eko arretari buruzko kopuruak aurkeztea.
6. Bizkaiko udalerrietako kopuruen mapa berria.
7. Azaroaren 25eko kanpaina: Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna.
8. Informazioa, eskaerak eta galderak.
9. Agurra eta hurrengo jarduketak.

Bertaratuak:

Lehendakaria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua: M. Teresa Laespada andrea

Lehendakariordea: Berdintasuna Sustatzeko zuzendari nagusia: Patricia Campelo andrea

Idazkaria: Berdintasuneko goi mailako teknikaria: Alixe Rodríguez andrea

Kideak:

- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia): Susana González andrea
- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Lankidetzarako eta Dibertsitatearako Zuzendaritza Nagusia): Ignacio Rodríguez jauna
- BFAko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila: Esther Glez. de Audikana andrea
- EJko Segurtasun Saila: Ana Iturriaga andrea
- EJko Osasun Saila: Nerea Urien andrea
- EJko Hezkuntza Saila: Eneko Goenaga jauna
- Udalerrriak eta mankomunitateak - EUDEL:
 - o Gordexolako Udala: Ángela Eguía andrea
 - o Fruizko Udala: Ane Legarretaetxebarria andrea



**Ez
bertaratzeagatik
desenkusatu
dira**

- Elkarateak eta erakundeak:
 - o *Genero-indarkeriaren eremukoak:*
 - ARGITAN Emakumeentzako Aholku Etxea: Mireia Saiz andrea
 - o *Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua ordezkatzuz:*
 - ERLANTZA elkarte: Raquel Teresa Miragaya andrea
- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia): Cristina Sarduy andrea
- EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea: Miren Elgarresta andrea
- EJko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila: M. Antonia Olabarrieta andrea
- Udalerrriak eta mankomunitateak - EUDEL:
 - o Barakaldoko Udala: María Solar andrea
- Elkarateak eta erakundeak:
 - o *Genero-indarkeriaren eremukoak:*
 - AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua: Marta Dolado andrea

Aztertutako gaiak:

1. **Bertaratuei ongietorria egitea**; Teresa Laespada andrea arduratu da.
2. **Gai zerrenda irakurtzea**; Patricia Campelo andrea arduratu da.
3. **Aurreko bilkurako akta onartzea**; Patricia Campelo andrea arduratu da.
4. **Ordezkarri berriak aurkeztea**; Patricia Campelo andrea arduratu da.
5. **2021eko arretari buruzko kopuruak aurkeztea**; Patricia Campelo andrea arduratu da.
6. **Bizkaiko udalerrietako kopuruaren mapa berria aurkeztea**; Patricia Campelo andrea arduratu da.
7. **Azaroaren 25eko kanpaina: Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna**; Patricia Campelo andrea arduratu da.
8. **Bilerari amaiera ematea, 11:30ean**; M. Teresa Laespada andrea arduratu da.

BILERAN JORRATUTAKO GAI NAGUSIAK ETA ESANDAKOAK**Esparru gisa:**

M. Teresa Laespada andreak, Behatokiko lehendakaria den aldetik, bilkurari hasiera eman dio, parte-hartzaile guztiei ongietorria eginez. Kasu askotan parte-hartzaileak lehen aldiz datoz bilera pertsonal batera, eta lehendakaria pozik agertu da covidaren krisia igarota aurrez aurreko bilerak egiten hasi direlako berriro. Azpimarratu du Aldundia dela Behatokiarene buru, baina baterako proiektua dela, parte hartzen duten pertsona guztiek eta haien erakundeek elkarrekin garatzen dutena, mahai gainean jarriaz interesekotzat jotzen dituzten gai guztiak, denen artean haiei heltzeko.

Azaldu du arretari buruzko kopuruak oraingoan ere ez direla onak, tratamendurako foru baliabideak eta zentroak gaur egun gainezka daudela (urriko eta azaroko kopuruak), eta, han-hemen ate gehiago zabaltzen ari diren arren, saturazioa erabatekoa dela.



Horrek gogoeta eragiten dio, pentsatu beharra baitago zer gehiago egin genezakeen, emakumeei arreta emateko zerbitzuak antolatu eta hedatzeaz gainera, prebentzioaren alorrean eta jarrera eta ohituren aldaketari begira; lan hori beste leku batzuetan ere egin behar da.

Gaineratu duenez, datuen irakurketa desberdinak egin badaitezke ere (baliteke horretan eragina izatea gero eta biztanle gehiagorengana iristea, gero eta emakume gehiagok salaketa jartzea eta gero eta kasu gehiago agerian geratzea), kontua da, kasuen kopurua ikusita, indarkeriak gure gizartean oso sakonean errotuta jarraitzen duela emakumeak kontrolatzeko mekanismo moduan. Bileran diren guztiei eskatu die gogoeta egin dezatela hurrengo urteetan irismena eta politika hobetzeko bideei buruz. Azpimarratu du osoko bilkura egitea garrantzitsua dela lan ildoari eusteko, eta, horregatik, berriz ere eskerrak eman dizkie bildutakoei.

Ordezkarri berriak:

Patricia Campelo andreak esker ona agertu du Izaskun Landaia andreak Emakunderen zuzendaritzan egindako lanagatik.

Halaber, egindako lana eskertu dio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Ana M. Reka andreari, eta ongietorria egin dio haren ondorengoari, Ana Iturriaga andreari.

Azkenik, etorri izana eskertu eta ongietorria egin dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Eneko Goenaga jaunari, Xabier Aizpurua jaunaren lekua hartu baitu.

Aurreko bilera batzuetara etorri izana eskertu dio Gordexolako Udaleko Beatriz Atienza andreari, eta ongietorria egin dio Ángela Egia andreari.

Bileran diren eta etorri ez diren parte-hartzaileei buruz informatu du, eta etorri izana eskertu die erakundeetako pertsonei.

2021ean emandako arretari buruzko datuen aurkezpena

Patricia Campelo andreak Bizkaiko arreta zerbitzu publikoen 2021. urteko lehen datuen laburpena aurkeztu du, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, esku-hartze sozialaren, polizia-aren, judizialaren eta osasuneko eta hezkuntzako esku-hartzearen arloetan. Jakinarazi du txosten osoa webgunean argitaratuko dela laster, azaroaren amaierarako, udalerrietako datu guztiekin eta autonomia erkidegoko eta lurralde historikoetako datu eta adierazle gehiagorekin, aurkezten ari den aurrerapenaren aldean.

Kopuruak txosteneko eremuei eta hurrenkerari jarraituz azalduko dituela adierazi du. Eta gaineratu du urteko adierazle orokorrekin batera epealdiko bilakaerari buruzko datuak jaso direla, eta, horiei esker, zer joera dauden ikus daitekeela. Txosten osoa azaroaren 25erako edukitzea garrantzitsua dela azpimarratu du, horrela erakunde guztiek euren datuak edukiko baitituzte.

Gizarte eremuari dagokionez, adierazi du arretari buruzko datuak hazi egin direla eta gorantz doazela **berehalako harrerarako foru baliabideetan** eta **BFAko egonaldi ertaineko harrerarako baliabideetan**, eta egonaldia ere luzatu egin dela, kasuen konplexutasunagatik, metatutako arazoek baliabideetatik irtetea zailtzen baitute.

Lege aholkularitzaren eta foru arreta psikologikoaren eremuetan ere tratatu txar edo indarkeria kasu berrien goranzko joera nabari da zerbitzua erabiltzen duten emakumeen artean. Arreta psikologikoaren arloan



garrantzizko faktorea da gorakada hori gertatzen ari den bitartean zerbitzua gero eta deszentralizatuago egotea eta ordutegi zabalagoa izatea.

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriari dagokionez, eskariaren lurralde-banaketa oso zabala da eta ez dago alde handirik udalerrri nagusien eta txikien artean edo landa aldeko herrien eta hirien artean. Sexu-indarkeria (sexu-erasoa) dela-eta emandako arretaren datua inoizkorik altuena izan da datuak eskuragarri direnetik. **Arreta Psikologikorako Foru Zerbitzuaren Adingabeen Programaren** bitartez, beste datu batzuen artean, arreta 2020ko aldean % 11 hazi dela jakin da.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei telefonoz informazioa eta arreta emateko zerbitzu espezializatuan (24 ordu), 2008tik aurrera deien kopuruak egonkor dirau eta urtean 1.700 bat dei egiten dira.

Etxebizitzaren arloan, aztertutako epealdiko kopururik handiena izan dute kasu larri eta salbuespenezkoetarako alokairuko etxebizitzaren zuzeneko esleipenek; eta babes ofizialeko alokairuko etxebizitzaren sustapenetako baremoan 10 puntu gehiago emateari dagokionez, 2013tik % 95 handitu da espediente aktiboen kopurua. **Laguntza ekonomikoetan** ere, azken urte hauetan gora egin du egoera bereziki larrian dauden emakume adjudikaziodunen kopuruak.

Polizia eremua dela-eta: 2021ean Ertzaintzak emakumeen 2.908 biktimizazio zenbatu ditu emakumeen kontrako indarkeriaren ondorioz. Eboluzioa goranzkoa da. 2021ean gora egin du sexu-askatasunaren kontrako delituekin zerikusia duten biktimizazioen kopuruak (% 30,2 hazi da); bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriazko gertaerek lehengo mailari eutsi diote, eta familia barruko indarkeriarekin lotutakoek behera egin dute. Aipatzekoa da 2021ean hildako bat izan dela Sestaon.

Kasuak lurralde osoan zenbatu dira: biktimizazioak izan dira Bizkaiko 112 udalerrietatik 86tan, eta udalerrri horietan bizi dira biztanleen % 99. Gehienbat bikotekidearen indarkeria kasuak izan dira (% 73); sexu-indarkeriaren biktima izandako emakumeak % 33 gehiago dira, eta hamar biktimatik ia lau adingabeak dira.

Eremu judizialari dagokionez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2021ean guztira 3.092 salaketa jarri dira (8 salaketa egunean). Salaketen kopurua % 121 handitu da 2005eko aldean. Eta Familia Elkargunera (Bilbo), amarentzako babes agindua zuten familietako 141 adingabe bideratu dira (guztizko kopuruaren % 34).

Osasun eremuan, Osasun Sailak 14 urtetik aurrerako emakumeen kontrako genero-indarkeriaren datuak aurkeztu ditu, larrialdietan eta lehen mailako arretan detektatuak. Ospitaleko esku-hartzeetan eta lehen mailako arretan detektatutako kasuak aurreko ekitaldikoak baino gehiago izan dira. **Nabarmendu egin da 2021ean Osasun Mentaleko Sarea** ospitale eremuaren barruan sartu dela eta bide horretatik detektatu direla kasu guztien % 5,3. Patricia Campelo andreak azpimarratu du osasunaren esparruan garrantzizko ahalegina egiten ari dela datuak udal mailan landu ahal izateko, lehen mailako arretaren kasuan. Datu horiek udalei eskaintzeko moduan egotea lortu nahi da.

Hezkuntzaren eremuan, 2020-2021 ikasturtean lau kasu izan dira sexu-jazarpen edo -abusuen nahiz jazarpen edo abusu sexistaren protokoloa abiarazi dutenak; eta, azkenean, lau horietatik hiru erregistratu dira halakotzat.

Aurkezpenari amaiera emateko, gogora ekarri du txostenaren aurrerapena baino ez duela aurkeztu, eta Behatokiaren webgunean txosten osoa eskainiko dela, eremu, maila eta adierazle guztiekin, azaroaren 25ari begira.

Galderak egiteko txanda ireki du.



Bizkaiko udalerrietako kopuruen mapa berriaren aurkezpena

Patricia Campelo andreak Behatokiaren produktu berri hori aurkeztu du, eta egun gutxi barru udalerrietako datu guztiak webgunean eskura egongo direla azaldu du. Halaber azaldu du Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzak Behatokiaren gaineko eskumena izan duen hiru urteetan lanean aritu direla kontzeptualizazioaren arloan, Berdintasunari buruzko Foru Arauak agintzen duen bezala, genero-indarkeriaren kontzeptua indarkeria matxistara hedatuz, eta horrek adierazleak berrikusi eta eguneratzea eragin duela. Gainera, garrantzizko ahalegina egin da mapa partekatzeko eta helarazi ahal izateko bai herritarrei bai profesionalei, biktimei eta gainerako pertsona interesdunei, webgunearen bitartez.

Jakinarazi du, halaber, osoko bilera honetarako hiru adibide prestatu direla, dagoen aniztasunaren erakusgarri: udalerrri handi bat (Barakaldo); mankomunatu gabeko udalerrri txiki bat (Fruiz); eta mankomunatutako udalerrri txiki bat (Gordexola). Webguneako "Errealitatea ezagutzea" atalean arretari buruzko kopuruak sartzen ari dira, 112 udalerrietako bakoitzak eta mankomunitateek hautatutako adierazleetan oinarrituta.

Izan ere, Behatokiaren helburuetako bat udal errealitatea ezagutzea eta ezagutaraztea da, kopuru eta datu horien bidez errazago lan egin ahal izan dadin politika publikoetan. Lurralde-testuingurua balio-zutabe guztiz garrantzitsua da Behatokiaren eginkizunen barruan, eta lanean jarraitzen da datuen udal mailako desagregazioan aurrera egiteko. Zeregin nekeza eta korapilatsua da, hainbat iturriekin koordinatu beharra dagoelako. Eta, jakina, autonomia erkidegoen arteko koordinaziorako foro guztietan parte hartzen jarraitzen da.

Erakutsi du nola datu-base horretan arretari buruzko datuez gainera beste adierazle eta argibide batzuk ere jasotzen diren, hala nola titulartasuna edo kasu berriak; eta idazkunen bitartez adierazten da ea baliabide propioak badagoen, datua eskuragarri dagoen ala ez eta zerbitzu mankomunaturik badagoen ala ez. Ohar garrantzitsua egin du: isilpekotasuna dela-eta, udalerrri ertain eta txikietan kasu gutxi daudenean ez da kasu kopuru zehatzik ematen, 1-5 tarte bakoitza bakoitzaren arabera.

Etorkizunari begira erronka hauek nabarmendu ditu: baliabide propioak dituzten udalerriei eskaintzen zaizkien informazio-orrien orde besterik modu sinplifikatuago bat ezartzea, 112 udalerriei zuzendua; datuen desagregazioan lanean jarraitzea eta adierazle berriak gehitzea, gero profilak aztertu ahal izateko, esate baterako erasotzaileen profilak, besteak beste, nahiz eta hori oso prozesu konplexua den iturriekin; adierazleen operazionalizazioa, eta abar.

Azaroaren 25eko kanpaina

Patricia Campelo andreak gogorarazi du azaroaren 25a hurbil dugula, eta urteko kanpaina datorren astean aurkeztuko dela iragarri du. Noizbait azaroaren 25ak egun seinalatua izateari uztea izango da helburua, eta aurkeztu zaizkigun bezalako kopurueta ez ohitzea. Webgunean erakutsi du gaueko aisialdiko indarkeriari buruz egindako kanpaina, arazo hori ere kezka iturri espezifiko baten baita.



Informazioak, eskaerak eta galderak

Patricia Campelo andreak adierazi du, azkenik, Behatokiak egiten duen neurketa lanaz gainera, haren esparruarekin lotzen ari direla indarkeria matxistari buruzko ikerketa espezifiko batzuk ere, kolektibo edo gune jakinen gaineko "argazkiak" edo begiradak eskaintzen dituztenak. Ildo horretan gaueko aisiari buruzko ikerketa kualitatibo bat amaitu berri dute. Nerea Barjolak zuzendu du eta neska gazteen laguntzaz gauzatu da. Gaineratu du prostituzioaren kontsumoari, pornografiaren kontsumoari eta salerosketaren pertzepzioari buruzko ikerketa egin dutela Bizkaiko 750 gizon eta 450 emakume biltzen dituen lagin handi batekin, eztabaida-talde eta guzti, Carmen Menesesek zuzenduta. Orain dela pare bat aste lortu dituzte ikerketaren lehenengo emaitzak, eta, beraz, oraindik argitaratu gabe dago.

Ángela Eguía andreak zorionak eman ditu Behatokiarengatik, pizten dion interesagatik, eta politikak xede egokietarantz bideratu ahal izateko eman dezakeen laguntzarengatik. Oso positiboa deritzo datuak une oro linean eskuragarri izateari, txosten batean baino errazago kontsultatu baitaitezke.

Raquel T. Miragaya andreak galdetu du ea nola jasotzen diren arreta zerbitzuetara jotzen ez duten kasuak, eta Patricia Campelo andreak argitu du zerbitzuen erabilerrari buruzko datuak bakarrik biltzen direla. Raquel T. Miragaya andreak galdetu du ez ote duten kontuan hartu borondatezko arretara jotzen duten emakumeen datuak biltzeko aukera, eta Patricia Campelo andreak argitu du Behatokiaren eginkizuna dela arretari buruzko benetako kopuruak jasotzea arreta-baliabide publiko guztietan, bai autonomikoetan, bai foru eta udal baliabideetan.

Alix Rodríguez andreak argitu du Raquel andreak aipatu dituen datuak bestelako informazioa direla eta beste iturri batzuetatik lortzen direla. Adierazi du 2007an eta 2010ean BFAk prebalentziari buruzko bi txosten egin zituela, eta Emakundek ere urtero azterlan bat egiten duela biztanleen inkestean bitartez. Mota horretako datuak interesgarriak direla onartu du, baina uste du horretara iristeak berekin dakarrela adierazle berriei erantzuna ematea, alegia, datu bilketan parte hartzen duten iturri guztiek forma eta begirada berriak bereganatzea. Gainera, esparru eta entitate bakoitzak sistema informatiko desberdinak (eta eskumen desberdinak) ditu, eta guztiak harmonizatzea oso lan mardula da erakundeentzat. Hala ere, uste du Behatokian ordezkaturako erakunde guztiak horretan lanean ari direla ezagutza hobetzeko gogo berarekin.

Patricia Campelo andreak azpimarratu du oso zorrotz jokatzen ari dela iturriekin, indarkeria matxistaren ezagutza sakontzeko.

Esker ona eta agurra.

Hartutako erabakiak

1. Aurreko bilkurako akta onartzea.
2. Bilera honetan azaldutako dokumentuak baliozkotzea.

Sin./Fdo.: ALICIA RODRIGUEZ GIL 2023-09-28
Genero-Indarkeriaren Bizkaiko Behatokiaren Idazkaria
Secretaria del Observatorio de la Violencia de Género en Bizkaia

Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTÍNEZ 2023-09-28
Genero-Indarkeriaren Bizkaiko Behatokiaren Lehendakaria
Presidenta del Observatorio de la Violencia de Género en Bizkaia

